

Ordiziako Udala

2022ITGB0011

Ordizian, **2022ko maiatzaren 16a**, Udaletxe honetako batzar-aretoan bildu da **TOKIKO GOBERNU-BATZARRA, Aparteko batzarran**, honakoak bertaratu direlarik:

*En Ordizia, siendo el día **16 de mayo de 2022** se reúne en el Salón de Plenos la **JUNTA DE GOBIERNO LOCAL** en Sesión extraordinaria con la asistencia de las siguientes personas:*

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA

Adur Ezenarro Agirre

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK

Maitane Alvarez Garziandia
Jon Ander Caballero Zubelzu
Miren Alazne Sukia Galparsoro

EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN
(Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak)
EAJ/PNV
PSE-EE (PSOE)

Bittor Bolinaga Alzelai
Iñaki Dubreuil Churruca

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

IDAZKARIA

Ainhoa Esnaola Zubeldia

BESTELAKO BERTARATZEAK ETA FALTA DIRENAK

AZTERTUTAKO GAIK

ASUNTOS TRATADOS

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIK:

ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA:

1.- 2022rako lan-eskaintza publikoa onartzeko proposamena


1.- *Propuesta de aprobación de la oferta pública de empleo para 2022*

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 13:00etan

AMAIERA ORDUA: 14:45etan





Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2022RAKO LAN-ESKAITZA PUBLIKOA ONARTZEKO

1.- APROBACIÓN DE LA OFERTA PÚBLICA DE EMPLEO PARA 2022

Proposamena

Propuesta

Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 128.1 artikulua, toki-korporazioek urtero lan-eskaintza publikoa onartu eta argitaratuko dutela ezartzen duena, eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 24. artikulua, toki-korporazioen enplegu publikoko eskaintzak "Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria"n eta dagokion lurralde historikokoan argitaratuko direla ezartzen duena.

El artículo 128.1 del Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, en el que establece que las corporaciones locales aprobarán y publicarán anualmente la oferta de empleo público, y el artículo 24 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, en el que establece que las ofertas de empleo público de las Corporaciones Locales se publicarán en el "Boletín Oficial del País Vasco", y en el del Territorio Histórico respectivo.

Abenduaren 28ko 20/2021 Legeak, Enplegu Publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoak, egonkortze-prozesuei buruzko enplegu-eskaintzak 2022ko ekainaren 1a baino lehen kasuan kasuko aldizkari ofizialetan onartzea eta argitaratzea eskatzen du.

La Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público, que exige que las ofertas de empleo relativas a procesos de estabilización sean aprobadas y publicadas antes de 1 de junio de 2022.

2022ko maiatzaren 4ko eta 2022ko maiatzaren 12ko Administrazio Orokorreko Teknikariaren txosten juridikoak.

Los informes jurídicos de la Técnico de Administración General de fecha 4 de mayo de 2022 y fecha de 12 de mayo de 2022.

2022ko maiatzaren 12ko Negoziazio-mahaiaren akordioa.


El acuerdo de la mesa de negociación de fecha 12 de mayo de 2022.

641/2021 Dekretua, Alkatezaren zenbait eskumen Tokiko Gobernu Batzarraren esku uzten dituen, besteak beste, Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzea.

El decreto nº 641/2021 por el que se delegan diversas competencias de la Alcaldía en la Junta de Gobierno Local, entre ellas, la aprobación de la Oferta de Empleo Público.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 2022ko apirilaren 27ko oharren arabera, iragarkiak ohiko epearen barruan eta,

La nota del Boletín Oficial de Gipuzkoa, de 27 de abril de 2022, en el que indica que para poder publicar los anuncios



Ordiziako Udala

2022ITGB0011

beraz, doan argitaratu ahal izateko, kontuan hartu beharreko azken eguna 2022/05/17a izango da.

correspondientes dentro del plazo ordinario y, por tanto, de manera gratuita, la ficha límite a tener en cuenta es el 17/05/2022.

Hau guztia ikusita, honakoa proposatzen da:

A la vista de todo ello, se propone la adopción del siguiente

AKORDIO PROIEKTUA

PROYECTO DE ACUERDO

LEHENENGOA.- 2022ko ekitaldirako lan- eskaintza publikoa onartzea, erabaki honen eranskinean jasotako ereduaren arabera.

PRIMERO.- *Aprobar la Oferta de Empleo Público para el ejercicio 2022, conforme al modelo que se acompaña como Anexo a este acuerdo.*

BIGARRENA.- Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen baitan, Enplegu Publikoaren Eskaintza Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

SEGUNDO.- *Publicar de conformidad con la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, la Oferta Pública de Empleo, en el Boletín Oficial del País Vasco y Boletín Oficial de Gipuzkoa.*

Eztabaida


Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Adur: Tokiko Gobernu Batzar ez-ohikoa deitu zen, ostegunean hitz egin gisara, Estabilitate Prozesura joango diren postuen Lan Eskaintza onartzeko. Gipuzkoako Foru Aldunditik jakinarazi digute maiatzak 17 baino lehenago bidali behar dela Aldizkari Ofizialera nahiz eta Legeak ekainak 1 jartzen duen azken epe-mugatzat.

Adur: *como se habló el jueves, se convocó una Junta de Gobierno Local extraordinaria para aprobar la Oferta de Empleo de los puestos que acudirán al Proceso de Estabilidad. Desde la Diputación Foral de Gipuzkoa nos informan que debe remitirse al Boletín Oficial antes del 17 de mayo, si bien la Ley establece como vencimiento final el 1 de junio.*

Ostegunean egindako Aldebiko Batzordean ordezkari sindikalekin negoziatu zen eta euren zalantzak batik bat, Dumitruren postuari lotuta zeuden. Azkenean, azken hau sartuko dela erabaki da. Bestalde, aurretiaz Maiteren postua ere ez zegoen 8. Xedapen Gehigarrian baina ikusi da programa-temporalek jarraikortasuna zutela, funtzio berak zituztela eta ondorioz lehiaketa bidez egingo da.

En la Comisión Bilateral celebrada el jueves se negoció con los representantes sindicales y sus dudas estaban fundamentalmente ligadas al puesto de Dumitru. Finalmente, se ha decidido que este último entrará. Por otra parte, el puesto de Maite tampoco estaba anteriormente en la Disposición Adicional 8ª, pero se ha visto que los programas-temporales tenían continuidad, tenían las mismas funciones y por lo tanto se realizará por concurso.



Ordiziako Udala

2022ITGB0011

Jarraian, Alkateak Eskaintza Publikora joango diren lan-postuak azaldu dizkie batzordekideei.

Acto seguido, el Alcalde explica a los miembros de la comisión los puestos de trabajo que van a acudir a la Oferta Pública.

Bestalde, ondoren, EPE askera joango diren eskaintza onartu behar da eta erabaki zein aterako diren. Erreposizio-tasa errespetatu behar da baina Oiartzundik bidali ziguten txosten bat justifikatuz gehiago ere atera daitezkeela.

Por otro lado, después, hay que aceptar la oferta de los que irán a la OPE libre y decidir cuáles saldrán. Hay que respetar la tasa de reposición, pero desde Oiartzun nos enviaron un informe justificando que también se pueden sacar más.

Idazkariak EPEari buruzko argibideak eman ditu.

La Secretaria informa sobre la OPE.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

Aldekoak: 6 (EH-BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.



Galde-erreguak ere izan dira.

2.- Galde-erreguak

Iñaki: udaltzaingoa hornitzeko konkurtso aukerarik badago?

Adur: Arkautetik konkurtso bateratuak egiten dituzte, baina ikusi da bertatik etortzen den udaltzaingo perfila ez dela egokia Ordizia bezalako udalerrri batean eta, beraz, egokiagoa da konkurtsoak Udalean bertan egitea. Izan ere, ertzain batek behar duen perfila eta udaltzainarena ez da gauza bera. Kotxetik jaisten ez diren pertsonak datoz.


Iñaki: zehaztu bada gehiago nahi duzuen perfila

2.- Ruegos y preguntas.

Iñaki: ¿hay posibilidad de concurso para abastecer a la Policía Municipal?

Adur: desde Arkaute se realizan concursos conjuntos, pero se ha visto que el perfil de la policía local que viene de allí no es el adecuado en un municipio como Ordizia, por lo que es más adecuado que los concursos se hagan en el propio Ayuntamiento. Porque el perfil que necesita un ertzaina no es el mismo que el de un policía municipal. Vienen personas que no bajan del coche.

Iñaki: especifica más el perfil que queréis.



Ordiziako Udala

2022ITGB0011

Adur: jendearekin hitz egiteko gaitasuna behar da. Era berean, beste herriekin ere kontsulta egin dut eta ez daude gustura etortzen diren perfilekin eta udal horiek kolore guztietakoak dira.

Adur: hace falta capacidad para hablar con la gente. También he consultado con otros pueblos y no están satisfechos con los perfiles que vienen y esos ayuntamientos son de todos los colores.

Iñaki: psikoteknikoak egitea oso garrantzitsua da, baina argitu iezadazue zein den nahi duzuen perfila.

Iñaki: hacer psicotécnicos es muy importante, pero aclaradme cuál es el perfil que queréis.

Adur: Ordenantzak betetzen dituzten udaltzaingoak nahi ditugu.


Adur: queremos policías locales que cumplan las ordenanzas.

Iñaki: argitu iezadazue mesedez eta definitu nahi duzuen perfila.

Iñaki: aclarádmelo por favor y definid el perfil que queréis.


Adur: ez dugu denborarik eduki baina argi daukadana da etortzen den perfila ez dudala nahi. Konkurtso bateratuek ez dute zuzendu hasiera batean planteatzen zena. Ez da bereizten ertzainaren eta udaltzaingoaren perfila eta ez dute zerikusirik. Beraz, aurrerago definituko dugu eta esango dizuegu.


Adur: no hemos tenido tiempo, pero lo que tengo claro es que el perfil que viene no lo quiero. Los concursos conjuntos no han corregido lo que en principio se planteaba. No se distingue entre el perfil del ertzaina y el de la policía local y no tienen nada que ver. Así que lo definiremos más adelante y os lo diremos.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde levanta la sesión, de la que se extiende la presente, de todo lo cual, yo la Secretaria, certifico.

Sinatzaileak Firmantes	ALKATEAK / EL ALCALDE Adur Ezenarro Agirre IDAZKARIA / LA SECRETARIA Ainhoa Esnaola Zubeldia
	Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara: / Este documento se ha firmado electrónicamente. Para verificar la veracidad de este documento ir a la página de Internet: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAADJE17.sF5e



Ordiziako Udala

2022ITGB0011